

FUNTSESKO JARDUERAK

Sortuko dugun negozioa Pizzeria bat izango da "Pepperoni Etxea", bost lagun gara, ideia ona eduki dugula iruditu zaigu eta martxan jartzea pentsatu dugu. Eta gogo handiekin jatetxea martxan jarriko dugu.

Gure Pizzeria "Peperoni Etxea" Getxoko portu zaharrean kokatuko dugu, konkretuki eskaileren alboan. Gure pizzeria ez da besteena bezala izango, gurean bi espazioak egongo dira, barnealdea eta kanpoaldea, terraza itsasoko bistekin eta itsasoaren brisa atseginarekin.

Leku ikusgai batean 100m²-ko lokala da, itsasoaren alboan. Barruko distribuzioari buruz, 15 mahai handiak (4pertsonekoak), eta 10 txikiak (2pertsonekoak) eta 150 aulki inguru izango du eta 15 aulki ume txikientzako egongo dira. Barruko espazioan, sukaldea, bulego txiki bat eta jantokia egongo da.

Izan ere oso leku ospetsua da Portu zaharra, jenderaen gustoko lekua eta udan batez ere turista asko egon daitezke leku honetan.